

../2016 Foru Legearen aurreproiektua, koa, Nafarroako 2017-2020 Estatistika Plana onesten duena.

Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legeak Nafarroan estatistika lana arautzen duen lege esparrua ezarri zuen, Foru Komunitateko errealitate sozial, ekonomiko eta demografikoari buruz behar adinako informazio fidagarria eta alderagarria edukitzeko helburuarekin.

Lege testu horretan berean, datuen hornitzaileek eta informazioaren erabiltzaileek estatistika lana garatu eta betetzen duen organoarekin dituzten harremanak arautzen dira. Bertan, datuak eman beharra, emaitzak egoki argitaratu eta zabaldu beharra eta betiere sekretu estatistikoa errespetatu beharra ezarri dira. Era berean, Estatistika Plana tresna egokitzat jotzen da estatistika lana sustatu, antolatu eta planifikatzeko. Lan hori Nafarroako Estatistika Sistemak egingen du.

Foru lege honek Nafarroako Estatistika Plana ezartzen du 2017-2020 aldirako. Nafarroako Parlamentuak onesten duen bosgarrena da honako hau, aurretik 1999-2002, 2003-2006, 2007-2010 eta 2011-2016 aldietako estatistika planei buruzkoak onetsi baitzituen. Horrekin segida eman nahi zaio Nafarroako estatistika sistema sendotu eta indartzeko prozesuari. Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen aurreikuspenen arabera, planaren indarraldian garatu beharreko helburuak ezartzen dira, bai eta horiek lortzeko ekintzak ere, hau da, Nafarroako Gobernuak estatistika jarduketarako onesten dituen urteko programak.

Azkeneko planaren indarraldia bukatu, bidezkoa da beste plan bat onestea foru lege bat erabilita tresna arau-emaile gisa.

Lege testu hau Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legean ezarritako aurreikuspenekin bat dator eta, helburuen arabera plangintza sistema baten bitartez, gizarteak eskatzen dituen informazio beharrei erantzun gogo die, generoaren ikuspuntua eta hurrengo baldintzak kontuan hartuta: administrazio erregistroen eta beste iturri batzuen ahalik eta kosturik txikiena eta aprobetxamendurik handiena, ez dadin bikoiztasunik gertatu, herritar, enpresa eta erakundeentzako eragozpenak gutxitu daitezten eta sekretu estatistikoa nahiz informazio estatistikoaren irisgarritasuna, lastertasuna eta eskuragarritasuna berma daitezten.

Nafarroako 2017-2020 Estatistika Planak aurreko planetan indarra izan duten printzipioak mantentzen jarraitzen du eta, bereziki, 2011-2016 aldikoari dagozkionak, zeinak administrazio iturriak erabiltzea eta Informazioa sexuaren arabera bereiztea hartzen baitzituen kontuan, planaren funtsezko bi helburu gisa.

Plan berri honek helburu horiek indartzen ditu, eta beste berri batzuk gehitzen, Administrazio Publikoak berak eta gizarteak tresnak izan ditzaten beren intereseko esparruak gehiago ezagutzeko eta, ondorioz, kudeaketa tresnak hobeak izan daitezten.

Estatistikako eragiketen kalitatea hobetzea da plan honetako helburu garrantzitsuenetako bat, hau da, kudeaketa prozesuen hobekuntza eta, bereziki, eragiketen dokumentazioari dagokiona. Horrexek daukagun estatistika informazioa berriz sailkatzea ekarriko du irizpide askoz murriztaileago bat baliatuta eragiketa estatistikoaren kalifikazioa lortzeko eta, beraz, Nafarroako 2017-2020 Estatistika Planaren parte izateko. Kalifikazio hori lortzen ez duten

gainerako eragiketek Administrazio Informaziorako Iturrien Inbentarioan sartuko dira, "administrazio jarduketak" edo "administrazio erregistroak" direnez.

Estatistika ofizial guztia Nafarroako Estatistika Institutuaren eta Nafarroako Gobernu Irekiaren web-orriaren bitartez eskuratzen ahalko da. Gainera, gobernuaren beraren administrazio jarduketei eta erregistroei buruzko administrazio informazioa jasoko da, bai eta beste erakunde batzuen eragiketa estatistikoei buruzkoa ere, plan honetan ezarritako irizpideen arabera eragiketa estatistikotzat jo ez baina ezagutza eransten dutelako. Orobat, orrialde horretan, adierazle sorta bat agertuko da departamentu bakoitzerako; adierazle horien ezaugarrietan honako hauek hartuko dira kontuan: definizioa eta metodologia, homogeneousitasuna denboran eta beste eremu geografiko batzuetan eta eguneratzea; bestetik, modua eman behar dute helburuak zenbateraino lortu diren neurtzeko eta beren eskumeneko sektoreko ikuspegi sintetikoa izateko.

Horrez gain, foru lege honek Nafarroako Gobernuaren eta entitate publikoen zein nazioarteko erakundeen arteko lankidetzaren instituzionalaren harremanak ezartzen ditu, bai eta Nafarroako Estatistika Institutuak plan hau betetzeko izanen dituen eginkizunak ere.

Azkenik, eta foru lege honen eranskin gisa, Eragiketa Estatistikoak eta Administrazio Informaziorako Iturrien Inbentarioa jasotzen dira, Nafarroako Gobernuko departamentuen arabera.

I. KAPITULUA: Nafarroako estatistika plana/ Xedapen orokorrak

1. artikulua. *Onespena*

Nafarroako 2017-2020 Estatistika Plana onesten da

2. artikulua. *Edukia*

Nafarroako 2017-2020 Estatistika Planak foru lege honen I. eranskinean aipatzen diren Eragiketa Estatistikoak jasotzen ditu.

3. artikulua. *Iraunaldia.*

Onesten den Nafarroako Estatistika Planak 2017ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31 arteko iraunaldia izanen du. Dena dela, plan hau iraungitzean plan berri bat onetsi ez bada, hurrengoak indarra hartu arte luzatuko da, salbu eta ezarrita dauden epe edo aldiengatik salbuetsi behar diren eragiketei dagokienean.

4. artikulua. *Estatistikako urteko programak*

1. Nafarroako 2017-2020 Estatistika Plana garatzeko, urteko programak prestatuko dira; haietan, urtero egin beharreko eragiketak zehaztuko dira.
2. Salbuespen gisa, planean jasota ez dauden eragiketak sartzen ahalko dira urteko estatistika programetan, horretarako arrazoiak adierazita, eta baldintza hauek beharko dituzte bete:
 - a) Egokiak izatea Nafarroako Estatistika Planaren helburuetarako.

- b) Oinarrizko proiektu tekniko bat izatea, funtsezko elementuak zehazten dituen, bereziki Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 27.2.b) artikuluan jasotako zehaztapenak, hori guztia garatu beharreko estatistika lanen fidagarritasuna bermatzeko.
- c) Lege honetan eta Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Legean aurreikusitako kalitatezko eta legezko printzipioak betetzea.
3. Betiere, eragiketa horiek urteko estatistika programetan sartzeko eta gauzatzeko, aurrekontu eta antolaketa aldetik dauden bitartekoak hartuko dira aintzat.
 4. Urteko estatistika programetako eragiketa estatistikoak Nafarroako Foru Komunitateko estatistika ofizialtzat hartuko dira, eta plan honetan onetsitako eskubide eta betebeharrak izanen dituzte.
 5. Nafarroako Estatistika Institutuak eskatzen zaizkion laginak prestatuko ditu, Foru Komunitateko Administrazioaren esku izanik, beharrezkoak diren datu guztiak inkestaren xedeko komunikazioa ezartzeko; bakar-bakarrik estatistika planean edo dagozkion urteko programetan onetsitako eragiketa estatistikoetarako.
 6. Estatistikako urteko programek, halaber, Administrazio Informaziorako Iturrien Inbentarioaren eguneratzeak jasotzen ahalko dituzte, lege honen 10. artikuluan definitzen direnak; II. eranskinak jasotzen du horien zerrenda.
 7. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Estatistika Kontseiluaren txostena eskuratu ondoren, Urteko Estatistika Programa onetsiko du programari dagokion urtearen aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen.
 8. Urteko Estatistika Programa bakoitzaren indarraldia urte naturala izanen da. Hala ere, hurrengo plana onetsi arte luzatuko da, beren izaera dela-eta jarraitutasuna behar duten eragiketarako.
 9. Nafarroako Estatistika Institutuak urteko estatistika programa bakoitzaren jarraipen txostena egingen du Nafarroako Gobernuak onetsi dezan, bidezko baldin bada; alde aurretik, Nafarroako Estatistika Kontseiluari jakinaraziko zaio. Txostenetan alderdi hauek jaso beharko dira eragiketa estatistiko bakoitzerako:
 - a. Zenbateraino gauzatu den
 - b. Estatistika produkzioko prozesuaren dokumentazio fasea
 - c. Genero ikuspegia
 - d. Informazioaren gehieneko bereizketaren lurralde eremua
 - e. Hurrengo urtean estatistika programan txertatzeko aurreikuspena
 10. Era berean, plana bukatu ondoren, departamentu bakoitzak egindako estatistika lana zehazteko Nafarroako Estatistika Institutura bidaliko duen memorian oinarrituz, Nafarroako 2017-2020 Estatistika Plana ebaluatzeko proposamena egingen du, Nafarroako Gobernuak onetsi dezan, Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen ezarritakoarekin bat. Ebaluazioak alderdi hauek behintzat bilduko ditu:
 - a. Zenbateraino gauzatu den

- b. Estatistika produkzioko prozesuaren dokumentazio fasea
- c. Genero ikuspegia
- d. Informazioaren gehieneko bereizketaren lurralde eremua
- e. Erabiltzaileen gogobetetasuna eta zer garrantzi ematen dioten

11. Nafarroako Gobernuari igorri aurretik, dokumentu horiek Nafarroako Estatistika Kontseiluari jakinaraziko zaizkio.

5. artikulua. *Araubide juridikoa*

1. Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legeak arautuko du jarduketa estatistikoa.
2. Nafarroako Estatistika Planean jasotako jarduera estatistikoak Europako Estatistiken Jardunbide Egokien Kodeko printzipioak hartuko ditu kontuan; izan ere, Europako Estatistika Sistemaren Batzordeak 2011ko irailaren 28an egin zuen bere kode hori.
3. Plan horretan sartutako eragiketei dagozkien emaitzak publikoak eta eskuratzeko modukoak izanen dira beti. Edozein pertsona edo entitate juridikok eskatu eta erabiltzen ahalko ditu datu horiek, sekretu estatistikoa arautzen duen Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 15.etik 22.era bitarteko artikuluetan aurreikusitako salbuespenak izan ezik.

6. artikulua. *Erantzun beharra*

1. Nafarroako 2017-2020 Estatistika Planeko eragiketak nahitaez bete beharrekoak dira.
2. Nafarroako Estatistika Planaren arabera eragiketa estatistikoak burutzeko gaitasuna duten organoek administrazio datuen iturrietara jotzen ahalko dute, datu pertsonalak barne, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11.2 artikuluan aurreikusitako kasuen arabera identifikatuta daudenak eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren, erakunde autonomoen eta haien menpeko gainerako entitate eta enpresen esku daudenak; betiere, datu horiek beharrezkoak izan beharko dituzte aginduta dituzten eragiketa estatistikoak prestatzeko.
3. Nafarroako Estatistika Planeko eragiketarako ematen diren datuak sekretu estatistikoaren menpe egonen dira, Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 15.etik 22.era bitarteko artikuluetan xedatzen denaren arabera.

II. KAPITULUA: Estatistika Planaren helburuak

7. artikulua. *Helburu orokorra.*

Nafarroako estatistika sistema garatu eta handitzea du helburu orokor Nafarroako 2011-2016 Estatistika Planak, gizarteak eskatzen dituen informazio beharrei kalitatezko erantzuna emateko, generoaren ikuspuntua kontuan hartuta eta dauden iturrien ahalik eta kosturik txikiena eta aprobetxamendurik handiena bilatuz, ez dadin bikoiztasunik gertatu, herritar, enpresa eta erakundeentzako eragozpenak gutxitu daitezen eta sekretu estatistikoa nahiz informazio estatistikoaren irisgarritasuna, lastertasuna eta eskuragarritasuna berma daitezen.

8. artikulua. *Berariazko helburuak*

Helburu orokorra bermatzearren, berariazko helburu hauek ezarri dira

1. Informazio eskaerei erantzutea, produkzio estatistikoa beharretara egokituta.
2. Unitate informazio-emaileei zama gutxitzea, administrazio erregistroak erabilia
3. Epe Ertaineko Plan Ekonomikoari lotutako politika publikoen plangintzara eta jarraipenera bideratutako adierazle sistemaren eskakizunei erantzuteko moduko informazioa sortzea.
4. Datuak hedatzeko eta iturriak eskuratzeko balio duten teknologia berriei kasu egitea, eragiketa estatistikoak prestatzeko
5. Gizartearen esku jartzea informazio estatistiko guztia, eskuratzeko moduko formatuan eta gardentasun eta puntualtasun irizpideei jarraituz
6. Eragiketa estatistikoen kalitatean sakontzea, koordinazioa, prozesu eta metodologiaren dokumentazioa eta ebaluazio prozesuen inplementazioa sustatuz.
7. Generoaren ikuspegia bultzatzea
8. Informazioaren bereizketa indartzea, lurraldea, sektore ekonomikoak edo biztanle taldeak xede dituzten informazio eskaerak ase daitezen.

III. kapitulua. Eragiketa Estatistikoak eta Administrazio Informaziorako Iturrien Inbentarioa

9. artikulua. Eragiketa estatistikoak

Eragiketa estatistikoek kalifikazio hori lortuko dute, Nafarroako Estatistika Institutuak eta Erakunde ekoizleak aztertu ondoren. Horretarako, eragiketa estatistikotzat joko dira banako datuen bilketatik abiatuta emaitza estatistiko agregatuak (taulak, indizeak...) lortzen dituzten jarduerak, kalitateko estatistiken produkzio eraginkorrerako beharrezko diren lanak barne. Eragiketa Estatistiko bakoitzak ekoizpen estatistikoaren prozesuari buruzko dokumentazioa jaso beharko du; ahal dela, GSBPM (Generic Statistical Business Model) ekoizpen estatistikoaren eskema orokorrari doitua; hauexek dira horren lehen mailako faseak:

- a) Beharrak zehaztea
- b) Diseinua
- c) Garapena
- d) Datu bilketa
- e) Informazioaren prozesua
- f) Informazioa analisisa
- g) Zabalkundea
- h) Ebaluazioa

10. artikulua. Administrazio Informaziorako Iturrien Inbentarioa

1. Administrazio Informaziorako Iturrien Inbentarioa sortuko da elementu hauekin:
 - a. Administrazio Jarduketetatik heldu diren informazioak
 - b. Administrazio erregistroak
 - c. Sintesi eragiketak
2. Administrazio Jarduketetatik heldu diren informazioak izateko, Administrazio Publikoa kudeatzeko intereseko ekintza administratibotik heldu diren datu estatistiko agregatuak

sortu beharko dituzte, baina eskakizunik gabe, eragiketa estatistikoei eskatzen ahal zaizkienak, hala nola, beharrak zehaztea, diseinua edo ebaluazioa

3. Administrazio erregistroak zalantzarik gabe identifikatzen ahal diren unitateen banakako informazioa jasotzen duten datu multzoak dira, administrazio jarduketetatik heldu direnak, eta hura informazio sistematan metatzen dute egitura baten barrenean.
4. Sintesiko eragiketak informazio agregatuko pilaketak dira, eragiketa estatistikoetatik heldu direnak, administrazio eragiketetatik, administrazio erregistroetatik edo beste iturri estatistiko batzuetatik heldu diren informazioak, eta hainbat izen hartzen ahal dituzte: urtekaria, diagnostikoa, memoria, programa, plana edo beste batzuk.
5. Nafarroako Estatistika Institutuak bere web-orriaren bitartez argitaratuko ditu eragiketa estatistikoen eta Administrazio Informaziorako Iturrien Inbentarioaren emaitzak, bai eta biei loturiko dokumentazioa ere.
6. Eragiketa estatistikoek eta Administrazio Iturrien Inbentarioko produktuek kontuan hartuko dute zer erabileremutan sailkatzen diren, bai eta haiek identifikatzera daramaten "etiketak" edo "kontzeptuak" ere.

IV. KAPITULUA: erakundeen lankidetzak

11. artikulua. *Nafarroako Estatistika Institutuaren harremanak.*

Nafarroako Estatistika Institutuak, egokia iruditzen bazaio, estatistika lanak egiten dituzten mota guztietako entitate eta erakundeetara jotzen ahalko du, Nafarroako 2017-2020 Estatistika Planean ezarritako helburuak kudeatzeko ondorioetarako bakar-bakarrik.

12. artikulua. *Lankidetzak-hitzarmenak.*

Nafarroako Gobernuak lankidetzak hitzarmenak sinatzen ahalko ditu Estatuko, Europako eta autonomia-erkidegoetako kasuan kasuko entitateekin Foru Komunitatean lortutako laginak hobetzeko asmoz, bereiztetik lortutako estatistikek ordezkagarritasun handiagoa izan dezaten eta Nafarroari buruzko datuen ustiapena osoagoa izan dadin.

Xedapen gehigarri bakarra. *2017. Urteko Estatistika Programaren onespena.*

Nafarroako Gobernuak, beranduenik, foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean onetsiko du 2017. urteko estatistika programa.

Azken xedapen bakarra.

Beste eginkizun bat Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 31.1 artikuluan

Txostena egitea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren administrazio prozeduren diseinuari eta erreformari buruz, haiek beren izaeragatik ondorioak izaten ahal dituztenean iturri estatistiko gisa erabil daitezkeen informazioen produkzioan, berrikuntza horien

aprobetxamendua ahalik eta onena izan dadin eta ekarpen egokia egin dadin premia estatistikoak behar bezala betetzeko.